

SEXU INDARKERIA MATXISTEN ETA SEXU-INDARKERIEN AURKAKO PROTOKOLOA



2026KO UDAKO EGUNERATUA

AZKAINEKO
HERRIKO ETXEA



MAIRIE
ASCAIN



Protokolo hau 2022an sortu zen, **Euskal Hirigune Elkargoko Berdintasunaren Batzorde Estrakomunitarioaren** ekimenez. Garai hartan, herriko hautetsi batek ordezkatzeko zuen herria. Herriak protokoloa bereganatu zuen, eta herri mailan plantan ezarri zuen. Euskal Hirigune Elkargoren jatorrizko protokoloa eranskin gisa doa.

Zertaz ari gara zehazki?	3
AZKAINEN	4
A) Informazioa	4
ANGELA GE	4
KOMUNIKAZIOA	4
Ekitaldia baino lehen	4
Ekitaldian zehar	5
B) Zainketa: erreferenteen izendatzea	5
C) JAUREGIA: biktimak hartzeko gunea	6
D) Biktimaren hitza jasotzea	6
Lotura eta baliabideak	6
ERASO BATEN AURREAN, ZER EGIN?	7

Zertaz ari gara zehazki?

Indarkeria matxistez eta sexu-indarkeriez hitz egiten dugunean, honako jokabide hauei egiten diegu erreferentzia:

- begirada temati eta deserosoak,
- hitzeko eraso tematiak,
- irain publikoak,
- jarraipena edo *stalking*-a,
- erakuskeria sexuala (*exibionismoa*) eta gorputzarekin igurztea (*frotatzeak*),
- sexu-erasoak eta bortxaketak.

Oroitarazten dugu **"dragatzearen eta jazarpenaren arteko desberdintasuna onespena dela."**

Azalpen horiek **Nouvelle-Aquitaine eskualdeko "Kaleko jazarpenaren gida"**-tik hartuak dira (*Indarkeria matxistak eta sexu-indarkeriak espazio publikoan* – ikus eranskina). Gida horrek gertakariak eta mugak hobeki ulertzen laguntzen du.

Halaber, **HDR 2024 Gidan** ere antzeko elementuak jasotzen dira (ikus eranskina).

Azkainen, era berean, jokabide arrazistak edo homofoboak pairatzen dituzten pertsonen ere gomendatuko zaie erreferenteengana jotzea.

Era berean, onartzen da protokolo honek **orratz-ziztaden fenomenoaren**, edarietan **GHB** edo bestelako substantziak ezartzearen, eta besteen bizia edo pertsonaren osotasun fisikoa arriskuan jartzen duen edozein jokabideren aurka ere jardungo duela eta beste menderatze kimiko batzuk.

Protokoloak, **"Galdegin Angela" (Demandez Angela)** izeneko estatu eta Europa mailako ekimena hartzen du erreferentziatzat ere. Ekimen hori **Erresuma Batuan** sortu zen 2016an, eta 2020an Frantzian ezarri zen, **2018ko abuztuaren 3ko legearekin** lotua. Helburua da parte hartzen duten lekuetan, arriskuan edo mehatxupear sentitzen diren pertsonen laguntza eta babes segurua eskaintzea.

AZKAINEN

Herri mailan, nola antolatu modu kolektiboan, indarkeria matxisten eta sexu-indarkerien aurkako prebentzioa eta esku-hartzea, bereziki Azkaingo bestetan? Hau da, nork, zer eta nola egiten du?

A) Informazioa

Ahalik eta lasterren, eta urte osoan zehar, komunikazio- eta prebentzio-lana egingen da. Hautetsi erreferentea prentsarekin eta sare sozialekin harremanetan jarriko da informazioa zabaltzen hasteko. Parte-hartzaile bakoitzak bere komunikazio-kanalen eta sareen bidez, baita bere kide eta lankideen artean ere, informazioa zabalduko du; bereziki, sasoinen lanean ari diren merkatari eta ostalarien artean, ainitzetan bilkuretan ezin baitute parte hartu.

ANGELA GE

Bereziki ostalariei eta ekitaldien antolaketan parte hartzen duten elkartei galdeginen zaie **"Galdegin Angela – Ask Angela"** ekimena, **ANGELA GE** izenez ezagutzen dena, ahal bezain gehien aplikatzeko.

Horretarako, **ANGELA GE xartari** atxikitzen gona bidatuko dira. Atxikimendua urrik da (eta Planning Familial elkarteak eskaintzen duen formakuntza jasotzeko aukera ematen du).



Oro har, **"Galdegin Angela – Ask Angela"** ekimeneko bazkide izateak erran nahi du lekuak (ostatu-jatetxe...) ez duela inolako jokabide diskriminatzailearik onartzen. Programa hau zaintzan, inklusioan eta elkartasunean oinarritzen da.

KOMUNIKAZIOA

Ekitaldia baino lehen

- Informazioa sare sozialen eta prentsaren bidez zabalduko da.
- Dokumentua Herriko Etxeko Webgunean ezarria da.
- Batzordeko kideek, besta komiteak eta parte hartzen duten elkarteek informazioa emanen diete segurtasun-agenteei, herriko poliziari eta bakotzak bere taldeetako kideei.
- **"ANGELA GE"** WhatsApp taldea erabiliko da. Taldean egonen dira:
 - Berdintasun Batzordeko kideak,
 - Segurtasuneko axuanta edota langilea,
 - Hurbileko elkarrekin/kolektiboetako kide bat edo bi (Besta komitea, eMe8, Ikastola, Gaztetxea, ostatuak eta jatetxeak).
- Halaber, **"App'elles"** aplikazioa ezagutzera gonbidatuko da.

Ekitaldian zehar

- 40 × 60 cm-ko afitxa ikusgarriak eta eskuorriak ezarriko dira.
- Komunikazio-euskarrien gastua Berdintasun Batzordeak hartuko du bere gain, aurrekontuaren arabera.
- Euskal Hirigune Elkargoak prestatutako euskarriak baldin badira, herriak erabiliko ditu.
- **eMe8 kolektiboak** banderolak ezarriko ditu hainbat tokitan: zubian, plazan, aparkalekuetan eta abar.

Afitxak ezarriko diren lekuak:

- Besta komitearen eta Ikastolaren postuak,
- ostatuak,
- kanpinak,
- komun publikoak,
- Turismo Bulegoa,
- Bide Ttipia,
- Xurio pilotalekua,
- Xurio aparkalekua (manegeak),
- Bollendorf parkea,
- Herri iragarki-panelak (panneau pocket),
- Kiroleta,
- eta beste toki egokiak.

Ekitaldian zehar, komunikazioa **"ANGELA GE"** WhatsApp taldearen bidez egingen da (adibidez, Jauregiara sartzeko kodea eskatzeko).

Kontzertuen artean prebentzio-mezua duen audioa zabalduko da (MP4 formatuan).

7. orrialdea dokumentu honetatik: «Eraso baten kasuan zer egin» afitxatu.

B) Zainketa: erreferenteen izendatzea

Parte hartzen duten herritar erreferenteak **"ANGELA NAIZ"** idatzia duen zapi ubel baten bidez identifikatuko dira.

Erreferente horiek borondatez arituko diren pertsonak izanen dira, honako egituretatik etorriak: Herriko etxea, elkarte partaideak, ostatu eta jatetxeak.

Haien eginkizunak hauek izanen dira: lekuko diren eraso-egoerak moztea edo erreferente bati jakinaraztea; laguntza behar duten biktima edo lekukoentzat lehen erreferentzia izatea; babesa, entzutea eta behar den kasuetan laguntza antolatzea.

"Sentin'elles" zaintza-sareko kideek egoera bat antzemanaz gero: biktima Besta komitearen edo Ikastolaren gunera bideratuko dute (plaza itxi aintzin), edo Gaztetxera (plaza itxi eta gero). Topagune horietako erreferenteek, biktima Jauregiara eramanen dute (sarbidea kode baten bidez).

Gainera, "Sentin'elles" momentu horietan, eMe8 kolektiboak zainketa aktiboak antolatuko ditu.

C) ANGELA ENEA: biktimak eta, oro har, laguntza behar duten pertsonak hartzeko gunea

Arduradunek «**Angela Enea**» izeneko **babesgune** bat zehaztuko dute. Bertan, biktimak babestu, lasaitu eta haien hitzak eta lekukotasunak jasoko dira, erasotzaileak identifikatzen laguntzeko. Behar izanez gero, larrialdi-zerbitzuek eta/edo segurtasun-indarrek ere bertan esku hartu ahal izango dute (salaketa jartzea, lehen arreta, Donibane Lohizuneko klinikara garraioa, etab.). Egokiena izango litzateke gune hori herriaren erdigunean eta denentzat erraz irigarria izatea, hala nola Jauregia edo apezetxea.

Gune honek, halaber, une zailean dauden eta atseden hartu edo indarrak berreskuratu behar dituzten pertsonak hartzeko balioko du. Bertan, adibidez, telefono mugikorrek kargatzeko entxufeak, edateko ura, preserbatiboak eta edalontzietarako babes-estalkiak (anti-intrusio tapoiak) egongo dira.

Gunera sartzeko erreferenteak honako hauek izango dira: auzapeza, batzordea eta, behar izanez gero, «**ANGELA GE**» WhatsApp taldearen bidez harremanetan jarriko diren kideak.

Bertan bi kanpaleku-ohe, biziraupen-mantak, ura eta lehen sorospenetarako botikina egongo dira.

Lehen sorospinak emateko, SAMU iritsi aurretik, erizain boluntarioak egon daitezke.

Harrera bermatzeko txandak antolatuko dira.

MISIOAK

- Herriaren eta Azkaineko besten erdigunean kokatutako babesgune atsegin, seguru eta lasaigarri bat eskaintzea.
- Herriaren erdigunean kokatutako gune estrategiko batean argi identifikatutako erreferenteak izatea; erreferente horiek **ANGELA GE** WhatsApp taldearen bidez harremanetan egongo dira, baita segurtasun-langileekin, larrialdi-zerbitzuekin eta segurtasun-indarrekin ere. Helburua indarkeria mota guztien aurka jardutea da, bereziki indarkeria sexista, sexuala, LGTBI+foboa eta diskriminaziozko jokabideak prebenitu eta artatzeko.
- Lehen sorospenetarako gune bat eskaintzea, zaurituei lehen arreta eman eta dagokien zerbitzura bideratzeko. Gune hori ez da inola ere kontsulta mediko edo tratamendu medikoak emateko lekua izango. Ez da botikarik edo tratamendu medikorik emango.

NORENTZAT?

- Bidea galdu duten gazte eta pertsona guztientzat, zailtasunak dituztenentzat, alkoholaren eraginpean daudenentzat edo, besterik gabe, atseden hartu, lasaitu, laguntza jaso, ura edan, azukrea hartu edo telefonoa kargatzeko beharra sentitzen duten guztientzat.
- Jokabide desagokiak (eraso sexistak, sexualak, diskriminatzaileak...) ikusi edo pairatu dituzten pertsona guztientzat, entzunak, artatuak, orientatuak eta aholkuak jasotzeko aukera izan dezaten, eta horrelako ekintzen normalizazioa amaitu dadin (ikus **ANGELA GE** protokoloa).

- Zauriak, erasoak, traumatismoak edo ondoezak jasan dituzten pertsona guztientzat. Lehen sorospenetako taldearen baliabide eta eskumenen barruan, honako hauek bermatuko dira:
 - Hasierako egoeraren balorazioa egitea.
 - Lehen sorospeneko oinarritzko jarduerak egitea.
 - Pertsonaren egoeraren bilakaera zaintzea.
 - Beharrezko informazioa larrialdi-zerbitzuei (SAMU) eta jendarmeriari helaraztea 112 zenbakiaren bidez.
 - Beharrezkoa bada, biktimaren ebakuazioa prestatzea eta gauzatzea.
 - Egindako harreraren, emandako arretaren eta egindako jardueren erregistroa gordetzea.

Irekiera-ordutegia, printzipioz, jende gehien biltzen den gauetan **22:00etatik 04:00etara** izan liteke.

D) Eraso sexistaren kasuan - Biktimaren hitza jasotzea

Ahal bada, emazteek hartuko dute beren gain biktimarekin lehen elkarriketa egitea.

Helburua da, konfiantzazko giroa sortzea, hurbiltasuna errextea, eta emazte biktimen hitza askatasunez ateratzen laguntzea.

Lotura eta baliabideak

- [LOI n° 2018-703 du 3 août 2018 renforçant la lutte contre les violences sexuelles et sexistes \(1\) - Légifrance](#)
- [Demandez Angela — Wikipédia](#)
- <https://www.pyrenees-atlantiques.gouv.fr/Actions-de-l-Etat/Droits-des-femmes-et-egalite-entre-les-femmes-et-les-hommes/Lutte-contre-les-violences/Violences-sexistes-et-sexuelles-dans-l-espace-public>
- <stopharcelementderue.org/wp-content/uploads/2024/02/Guide-hdr-2024-1.pdf>

ERASO BATEN AURREAN, ZER EGIN?

Ostatu batean lanean ari bazara eta norbait eraso baten berri ematera heldu bazaizu :

1. Herriko poliziari mezu bat igorri edo deitu.
2. Egiten ari zarena utzi, erasotua aparte hartu eta entzun.
3. Ez epaitu, ez dudan ezarri erraten duena, konfidentzialtasuna atxiki eta erabakiak bere baimenarekin hartu.
4. Norbait deitu nahi duen galdegin.
5. Ospitalera lagundu behar bada, eraman eta ohar hauek erran:
 - Ez garbitu.
 - Jantziak atxiki, ez aldatu.
 - Ez jan, ez edan, ez pixa egin (ahal bada).

Ostatutik edozein eraso ikusten baduzu, erasotzailea kanporatu.

ERANTZUNA

Erasoa kudeatu eta momentuan:

- 15 minutuz kontzertuak (eszenan) eta musika (ostatueta) moztu.
- Erasoen kontrako kuña ezarri eszenako bafleetatik.

Borbaketa bat bada (*eraso sexuala penetrazioarekin*):

- Biharamunean bestak ezeztatu.
- Biharamunean elgarretaratze bat antolatu.

Erahilketa bat bada:

- Besta osoak ezeztatu.
- Auzapezak herriko kontseilu berezi bat deitu.
- Biharamunean elgarretaratze bat antolatu.

